



Hamaikagarren sailkatu da Route du Sud lasterketan, Quintana, Voeckler edota Pardilla txirrindulari onenen pare ibiliz

2016ko ekainaren 24a, 487 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

**MIKEL ITURRIA URNIETARRA**

## Hauteskunde Orokorrak igandean, bigarren aldia sei hilabetean

Andoaingo eta Urnietako emaitzen jarraipena Aiurri.eus webgunean.

Zaharrak berri, abenduaren 20ko Hauteskunde Orokorrek errepikatu egingo dira igande honetan. Espainiako politikagintza blokeo egoeran izanik, Kongresurako eta Senaturako hautagaiak aukeratzeko deialdi berria egin dute. Alderdi nagusien artean, hautagaiei begira, aldaketarik ez dago. Nabarmenena, oraingoan Podemos eta IU elkarrekin aurkeztu direla Unidos Podemos izenarekin. Podemos alderdia izan zen, hain zuzen, abenduaren 20ko sorpresa Euskadi osoan iraba-



Herritar bat 2015eko abenduan Andoaingo Kongresurako emaitzei argazkia atera nahian, mahaikideek Senaturako botoak zenbatzen dituzten bitartean.

ziz. Gipuzkoan, Andoainen eta Urnietan ere Podemos lehen indarra izan zen. Igande gauean ikusiko da abenduaren 20tik hona zenbateraino alda-

tuko den herritarren botoa. Abstentzioaren datuari erreparatu beharko zaio deialdi berriak interes berbera piztu duen edo ez jakiteko.

### 2015eko abenduko emaitzak:

GIPUZKOA		
PODEMOS	97.859	(25,27%) 2
EAJ-PNV	91.043	(23,51%) 2
EH Bildu	80.880	(20,89%) 1
PSE-EE	51.530	(13,31%) 1
IU	10.630	(2,75%) 0
Abstentzioa	166.211	(29,93%)
ANDOAIN		
PODEMOS	2.339	(29,40%)
EH Bildu	1.542	(19,38%)
PSE-EE	1.472	(18,50%)
EAJ-PNV	1.345	(16,91%)
IU	257	(3,23%)
Abstentzioa	3.531	(30,63%)
URNIETA		
PODEMOS	882	(28,21%)
EAJ-PNV	777	(24,85%)
EH Bildu	535	(17,11%)
PSE-EE	451	(14,42%)
IU	67	(2,14%)
Abstentzioa	1.595	(33,71%)

## Kaletxikiko obrak direla eta, bilera deitu dute

Jaiak igarota, Kaletxikiko 28 eta 30 zenbakiko etxeak botako dituzte eta, bestalde, ur hodiariaren berrikuntzari ekingo diote. Udalak auzotarrei xehetasunak eskainiko dizkie.

### Merkatariekin:

Ekainak 28, asteartea. 13:30 Udaletxeko pleno aretoa.

### Bizilagunekin:

Ekainak 28, asteartea. 19:00 Berrozpe ikastetxea.

## Asanblada irekia Urnietan



Erraustegiaren aurkako batzar irekia egin zuten igande arratsaldean San Juan plazan, parte hartze handiarekin.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

## Urnietako Akelarreak tradizioa eta festa parte hartzaileak uztartu ditu

San Juan suaren bezperako Akelarrearen azken xehetasunak entseatu zituzten astearen hasieran.

San Juan plazan eta Plazido Muxika plazan Akelarrearen antzezpina eskainiko diete urnietarrei, eta azken egunetan

ikuskizuna eskainiko duten tokietan bertan entseguetan ibili dira.

### EKAINAK 23, OSTEGUNA

**21:00** Sorginen bilkura San Juan plazan. Kalejira Buruntzantzeanekin Plazido Muxika plazaraino. Sorgin dantza eta Akelarrea.

**22:30** Sua piztea eta erromeria Txanbolin txistulari bandarekin.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



Ikuskizunean parte hartuko duten hainbat lagun, astelehenean San Juan plazan.

## Krisia Andoaingo PSE-EEen



Alvaro Gonzalez zinegotziak alderdia utzi du, ezberdintasun sakonak argudiatuz. Zinegotzi modura jarraitzeko asmoa dauka, PSEren diziplinatik kanpo.

San Juan jaiak

Andoainen

Akelarrea

Urnietan

Aiurri

ESKUALDEKO

NORTASUN

HITZAK

AIURRI.EUS GUNEAN ARGAZKIAK ETA BIDEOAK



ESKUIZKRIBUAK, ZIRRIBORROAK, GUTUNAK, DISKO ETA LIBURUAK

# Aldundiak babestuko du Leteren bilduma zabala

3.000 liburu eta disko baino gehiago ditu, 80 karpeta eta 23 kuaderno, 500 inguru kartel eta foileto eta 400 gutun... Gipuzkoako Foru Aldundiak urnietarraren bilduma mardula duela gutxi eskuratu du

eta aurreko osteguneko prentsaurrekoan xehetasunak eskaini zituzten. Bilduma horretan ezinbestean agertu behar zen Lourdes Iriondo. Hainbat eskuizkribu eta dossierretan agertzen da.

Denis Itxaso Kultura Diputatuak bildumaren garrantzia azpimarratu zuen: "poeta unibertsal bati buruz ari garelako eta funts dokumentala bere osotasunean heldu zaigulako. Esku pribatuetan egonik, salmenten bidez sakabanatzeko edo kuxtatan gordeta jarraitzeko arriskuak zituen eta eskuratze honekin memoria eta iragan hurbila ezagutu ahal izateko iturri dokumental garrantzizko bat lortu dugu". Bilduma horretan ezinbestean agertu behar zen Lourdes Iriondo, eta agerraldian adierazi zuten idatzi, ipuin eta dossier ugari agertzen da.



Xabier Leteren eskuizkribuei begira agertzen dira Denis Itxaso eta Anjel Lertxundi.

50eko hamarkadatik hona alor desberdinetako sortzaileek etengabe garatu dute euskal kultura; eta horren guztiaren gakoak ezagutarazteko Lete-Iriondoren funtsa ezinbesteko iturria izango da. Benetako altxorak aurki daitezke bozeto eta eskuizkribu horietan: Inoiz argitaratu ez ziren poemak, pentsamenduak, ipuinak, ezagun egin diren kanta batzuen borradoreak, behin-behinekoak, azken bertsoa osatu arte sortutakoak. Xabierren lan poetikoari buruzko tesia prestatzen ari den Alex Gurrutxagari eman diote eskuizkribuen edukien deskribapena egiteko ardura.

OSTEGUN GAUEAN URNIETAKO AKELARREA, SAN JUAN PLAZAN ETA NAGUSIKI PLAZIDO MUXIKA PLAZAN

## Ilusioz gainezka daude



Aiurri astekaria Akelarrearen azken entseguetan izan zen eta hainbat kideren adierazpenak bildu zituen. **Patricia Zelaia**k dantza irakasteko lanak hartu ditu eta parte hartzaileen kementa txalotu du: "Akelarrean euskal dantza txertatzea beharrezko ikusi genuen. Partaide gehienentzat euskal dantzak berriak dira eta, beraz, meritua

handia daukate. Entsegu asko egiten ari gara eta parte hartzaileen gogoia ikusita, oso polita izaten ari da".

**Arantxa Corbellek** sorgin lanetan errepikatuko du, iazkoari jarraipena emanez. Alabarekin aterako da, eta ilusio berezia egiten dio horrek: "Oso berezia da niretzat, ama eta alabaren papera beteko dugulako

gainera. Sanjuanak oso gogoko ditut betidanik, eta Akelarrearekin are gehiago".

**Paki Navasek** sorginen ontzia prestatzeaz gain, dantza eginez hartuko du parte: "lan asko hartu nuen iaz, baina merezi du. **Laura Claudino**ren ideia bikaina iruditzen zait. Eta horrez gain, sorginak bereziki maite ditudalako hartzen dut parte".



Sorginak Patricia Zelaiaren esanetara aritu ziren entsegu lanetan.



Gazteboenek aginduak txintxo-txintxo jarraitu zituzten.



Gazte askoren arreta piztu zuen igande arratsaldeko deialdiak

## Parte hartze handia



Igande arratsaldean deitu zuten asanblada irekia Urnietan, erraustegiari buruz hausnarketa egiteko.

Aurreko igandean erraustegiaren egitasmoari aurre egiteko asanblada irekia egin zuten eta, argazkian ikus daitekeen bezala, partaidetza handia izan

zen. Taldeka solasean aritu eta gero, herriari auziari buruz informazioa zabaltzea adostu zuten. Igandeko bilera irekia abiapuntua izan zen.

**EKAINAK 24, OSTIRALA  
19:00 ZALDUNDEGI PLAZA**

Asanblada irekiaren sustatzailerik hitzordu berria ipini dute ostiral honetarako.

“Gorpuz eta arimaz” antzezlanaren taularatu zuten, igandean

## Erakustaldia Saroben

Urnietako Udal Antzerki Tailerrak igande arratsaldean eskaini zuen ikasturte amaierako emanaldia. Sarobe bete egin zen emanaldia ikusteko.

Ordubeteko emanadi entretenigarrian, 2015-2016 ikasturtean landutakoa taularatu zuten, horretarako gorpuz eta arima erabiliz. Poemak, maskarak, clownak eta umorea eta emozioak agerian izan ziren emanaldi osoan zehar, perkusio musikaz zein grabatutako musikaz lagunduta.

Elementu gutxiarekin gauzatuak eszenaratzean, bertara-



Antzerki tailerreko kideak Saroben.

tutakoek aukera paregabea izan zuten taldearen bilakaera etengabeaz jabetzeko, eta bu-

kaerako txalo zaparradarekin taldekideen ahalegina eskertu zuten.

### ARGAZKI RALLYA, SARI BANAKETA EKITALDIA



Ostiral arratsaldean egin zuten sari banaketa ekitaldia, zeinean aurkeztutako dozenaka argazki ikusi ahal izan ziren. Erakusketa zaba-

lik dago Lekaion, ekainaren 24ra arte.

**Bilduma onena:**

1. Isidro Rodriguez.
2. Beatriz Landa.

**Argazki onena:**

1. Imanol Lorenzo.
2. Pedro Manuel Garcia.

**Urnietako bilduma onena:**

1. Aitziber Peñagarikano.

2. Luis Mari Lekuona.

**14 urtetik behera:**

1. Eneko Garcia
2. Ama Lorenzo.
3. Leire Manso.

## Jaietan Alkate Txiki izateko izen-ematea zabalik dago



Sanmieletan Alkate txikiaren paperean parte hartu nahi duenak ekainaren 30a baino lehen eman behar du izena. Egun horretan 2007an jaiotako herriko mutiko eta neskatu banak Alkate Txikiaren kar-

gua beteko du. Aukeraketa zozketa bidez egingo dute izena eman duten haurren artean. Fitxa bete beharra dago eta Lekaion aurkeztu. Aurten haurren eguna irailaren 30ean ospatuko da.

## Urnietako Udal aurrekontuaren jarraipena

Urnietako Udalak aurrekontuaren jarraipena egin ahal izateko datuak eskegi ditu Urnietako Udalaren.

Hilabetero Udalaren, Kulturietaren eta Urnietako Eraikiren datuak eguneratuta ikusgai ipintzeko asmoa dute.

## Nazioarteko ikasleen bilkura



Aurreko astean Salesiar ikastetxean Erasmus egitasmo nazioarteko jardunaldiak burutu zituzten, hainbat gaien inguruko hausnarketa eginez. Gazteen arteko era guztietako bortizkeria, hala nola, homofobia, bullying-a, genero indarkeria

edota borroka ekiditeko kontzientzia piztu nahi duen ikuskizuna izan da.

Finlandia, Polonia, Alemania eta Urnietako berrogeita hamar bat gazte aritu ziren elkarbizitza jardunaldietan. Donostiako udaletxean ere harrera egin zieten.

## Aiurriko posta elektronikoa: urnieta@aiurri.eus

Aiurri astekariko erredakzio batzordeak herritarrei eta herri eragileei jakinarazi nahi die Aiurriren posta

elektronikoan aldaketa txikia dagoela. Zehazki, domeinuan. Aiurriko posta, beraz, urnieta@aiurri.eus da.



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Euskara Zuzendaritza



ALDERDI SOZIALISTAREKIN DUEN LOTURA HAUTSI ETA BERE KABUZ ZINEGOTZI ARITZEKO ASMOA AGERTU DU

# Krisia Andoaingo PSE-EE alderdian

Udal politikagintzan dabiltzanen artean bazebilen zurrumurrua, sozialisten artean desadostasunak zeudela aditzera ematen zuena. Bada, Udal hauteskundeak ospatu eta urtebetera Alvaro Gonzalez zine-

gotziak alderdiarekin hautsi duela iragarri du. Andoaingo zuzendaritza politikoarekin gaindiezinak diren desberdintasunak dituela adierazi du, gainera. Hala ere, zinegotzi postuari eutsi egingo dio.

Andoaingo Udalean zinegotzi den Alvaro Gonzalezek prentsa ohar bidez udal talde sozialista eta PSE-EE-ren diziplina uzteko erabakia hartu duela iragarri du, Andoaineko udal-politikekin eta udal-talde sozialistaren zuzendaritzarekin funtsezko desadostasunengatik. Gonzalezek adierazi nahi du "aurrerantzean proposamenak egiteko eta botoa igortzeko askatasunarekin, andoaindarren alde lan eraginkorragoa egin ahal izatea espero duela". Horixe izan zen Gonzalezek berak astelehen goizean bidali zuen oharra. Astelehenean bertan udaletxean sarbidea



PSE-EEko Udal hauteskundeetarako zerrenda. Alvaro Gonzalez Mainer Lainezen alboan ageri da.

eman zion eskaerari eta Andoaingo alkate Ana Carrereri hartutako erabakiaren berri emateko bilera eskatu zion.

Urte zaila izaten ari da Andoaingo PSE-EE alderdiaren zatitza. Bigarren alderdia izanik ere, EAE mailako akordioaren arabera, EAJ-PNVren babesarekin alkatetza lortzeko aukera eskura izan zuen. Boto zuri bategi, ordea, aukera hori galera izan zion Mainer Lainezi. Gonzalezek erabakiak egoera zailan uzten du Andoaingo PSE-EE, Udal ordezkari bat galtzen duelako. Izan ere, Gonzalezek zinegotzi aktari eusten diola adierazi baitu.





ELKARTEKO KIDEAK BURU-BELARRI ARI DIRA SAN JUAN JAIETAKO HASIERA EKITALDIA PRESTATZEN

# Ontza elkartearen eskutik pregoia eta txupinazoa

75. urteurrena ospatzen ari den Ontza elkarteak hartuko du protagonismoa aurtengo pregoian eta txupinazoan, San Juan jaietan. Elkartearen zuzendaritza batzordeko Iñaki San Buenaventura eta

Joxema Setien kideek adierazi dutenez, elkarte kideak ahaleginak egiten ari dira ikusgarria izan dadin San Juan bezperako ekitaldi hori.

## Zerbait aurreratu al dezakezue pregoian eta txupinazoan egingo duzuenaren gainean?

**Iñaki San Buenaventura:** Ekitaldi horretan elkartearen izaera islatzea nahiko genuke. Plazara hurbiltzen dena begiratu batean ohartu dadila elkartearen den, nork osatzen dugun, zenbat sekzio dauzkan... Udaletxe-ko balkoian ere elkartearen ordezkariarik zabalena biltzea nahiko genuke. Hori dena ondo antolatzeke, bazkideei elkartearen bertan biltzeko deialdia egin diegu, pregoiaren aurretik. Zizka-mizkarako aukera eman, eta ondoren komitiba baten moduan abiatuko gara aldapan gorra plazarantz. Taldearen buruan elkartearen bertan sortu zen Gora Kaletxiki txaranga joango da, eta atzetik danborrada. Horiekin batera, ehiztariak eta arrantzaleak izango dira, beren jantzi eta tresneria guztiarekin. Azkenik, txirrindularitzaren sekzioko bazkideak ere presente izango dira, lasterketetan behar izaten dituzten elementu adierazgarriekin. Goikoplaza nahiko beteta geratuko da jendearen presentzia handiari esker. Pregoia irakurri osterako ezustekoren bat ere pentsatuta daukagu, baina hobe gehiago ez aurreratzea.

## Pregoirako hautagaiak herritarrek proposatu ostean, gizarte eragileek aukeratu ohi dute pregoilaria. Hautaketa prozesu horrek ezer berezirik pentsarazi al dizue?

**Joxema Setien:** Guretzat ohorea da pregoirako izendatua izatea. Esker onez eta pozik hartu dugu elkartearen aukeratu izana. Egia esanda, 75. urteurrenaren ospakizuna dela eta, jabetzen ari gara Ontza oso estimatua dela herrian. Elkartearen erreferentzia da andoaindarrentzat, bazkari edo afarietan bertan egon izanagatik besterik ez bada ere; badakite zer den elkartearen, nork osatzen dugun, eta baloratzen da herriari begira egiten dituen aktibitateak, kirolean edo aisialdian.

**I.S.:** Egia esanda, urtero alda-



Iñaki San Buenaventura, Gabino Agudo eta Joxema Setien Ontza elkartearen, urteurrenako bandera eskutan dutela.

tzen da zuzendaritza batzordea elkartearen, eta guri egokitu zaigu urte berezi honi aurre egitea. Urte berezi honetara moldatu behar izan dugu, ohi baino lan gehiago eskatzen ari zaigu, baina gustura ari gara. Maila pertsonalean, benetan ohorea da horren gertu bizitzea urteurrena zein Sanjuanetako pregoia.

## Nola doaz urteurrenako ospakizuneko ekitaldiak, urte osora zabaldu dituzuenak?

**I.S.:** Zoragarri irten zen maiatzaren 22ko ekitaldi nagusia. Herriko eragile ugari hurbildu zitzaigun gurekin eguna ospatzera, eta elkartearen bazkiderik zaharrenak ere hunkituta agertu ziren, ez zuten uste halako dimentsioko ospakizuna izango zenik. Orain arte egin diren gainerako ekitaldiak ere uste bezala irreten ari dira, mus txapelketa, arrantza eta ehizari lotutakoak. Lasarte-Andoain bertso afariari dagokionez, esan behar da saio bikaina izan zela, baina bertso jende gehixeago espero genuela.

**J.S.:** Ondorengo aste eta hilabeteetan datozen ekitaldiak darabilzkigu eskuartearen oraintxe, eta urrutira gabe, San Pedro jaiekin edo eta Jubenilen Gipuzkoako txirrindularien etaparekin dabilta buru-belarri elkartearen bazkide ugari. Hori bai, esan beharra daukagu atzeratu egingo

dela musika emanaldia, ekainaren 29rako iragarrita zegoena. Andoaingo herria kultur ekitaldiez gainezka ibiltzen da ekainean zehar, eta ezin izan ditugu bildu nahi genituzkeen musikari guztiak. Ez da zehaztu, baina urtea amaitu aurreko egunen baterako atzeratu dugu kontzertua.



Bazkideen seme-alabek dantzatu zuten aurrekoa urteurrenako ospakizunean.

## Urteurrenaren harira, ikusi al duzue premiarik etorkizunari begirako hausnarketarik egiteko?

**I.S.:** Ospakizuna antolatzen bideratu ditugu ahalegin guztiak, egia esanda. Dena den, elkartearen osatzen duen giza taldearen eboluzioa eta dinamika zein den ikusita, ez zaigu iruditzen hausnarketa handiegirik egin behar denik. 137 bazkide ditu elkarteak, horietatik 37 bat jubilatuta eta ohorezkoak; beti doa berritzen bazkideez eta mantentzen kopuruz. Arrantza, ehiza eta txirrindularitzako sekzioak beti bezain indartsu mantentzen dira, eta bazkide guztiak mentalizatuta daude bere ekarpena egin behar dutela egokitzen zaienean. Talde berria sartzen da urtero zuzendaritzan, eta bere kide guztiak garbi edukitzen dute aparteko inplikazio pertsonala eskatuko diela urte horrek.

**J.S.:** Pixka bat atzera begiratzaren baduzu, konturatzaren zara elkartearen gizartearekin ari dela eboluzionatzen; gizartearen aldaketan den heinean ari da aldatzen elkartearen funtzionamendua ere. Gizonak biltzeko espazioa izan zen elkartearen garai batean, baina atzera utzi da mentalitate hori. Familia giroa da nagusi gaur egun, eta bertan antolatzen diren bazkarietan islatzen da hori batez ere. Egia da urteurrenaren atera zen argazkian, gizonak besterik ez zirela ageri bazkideen artean. Baina denbora kontua izango da emakumeak ere bazkide gisa ikusteak. Ez dago ez arau ezta hori eragotzi dezakeen debekurik ere. Gertatzen da zenbait baldintza bete behar izaten direla: bazkide berria izateko, nahi izateaz gain noski, jubilatuta edo hil den bazkide baten familiakoa izan behar da, edo eta bestela, plaza bat libre geratu behar da. Auzoan-eta, badira elkartearen errealitatea familia giroan bizitu izan duten emakume gazteak, transmisio hori jaso izan dutenak, eta seguru gaude bazkide egin goiz ala berandu.



ZUENA ELKARTEAREN JAIALDIA, GARAGARDO AZOKA ETA ANDOAINGO ROCK JAIALDIA

# Kultur jarduera indartsuak San Juan jaien atarian

Zuena elkarteak jaialdi ikusgarria eskaini zuen asteburuan Basteron, ikasturte osoan zehar landutako dantza ezberdinen eta jarduer fisikoen erakustaldia eginez.

Rock jaialdiak beste behin ere hango eta hemengo rockzaleak bildu zituen. Elliot Murphy izan zen jaialdiaren izar nagusia. Arrate ondoan jarritako Garagardo azokak ere jendetza erakarri du.

## Zuena elkartearen jaialdia



Zuena elkarteko ikastaroetako kideek ederki pasa zuten Basteroko emanaldian.

## Rock jaialdia; Garagardo Azoka



Hillbilly Moon Explosion taldea.



Leire Rekalde irakaslea eta bere taldea zunba dantzatzen.



Andoaindar nahiz kanpotar ugari bildu zen Nafarroa plazan.



Zuenako ikastaroetara adin guztietako partaideak hurbiltzen dira.



Gazteku pilota eskolako kideek igandean Garagardo Azokan bazkaldu zuten.





# KIROL ALBISTEAK

## Mikel Iturria handienen pare Route du Sud itzulian

Hamaikagarren sailkatu da Iturria Route du Sud itzulian, eta berrindartu egin da denboraldi bukaerari begira.

Mikel Iturria txirrindulariak argia ikusi du, azkenean. Pasa den astean Route du Sud lasterketa korritu zuen Frantzia hegoaldean, eta sailkapen nagusiko 11. postuan bukatu du lau eguneko itzulia. Iturria esprinterren tropeltxoan helmugaratu zen lehen eta laugarren etapetan. Ostiraleko erlojupekoan minutu eta erdi inguru galdu zuen onenekin, eta etapa nagusian, Val d'Azun eski estazioan bukatu zen saioan, 12. helmugaratu zen Nairo Quintana itzuliko garailearengandik minutu eta erdira.

### TOURMALETEAN AURREALDEAN, ETA ELURPEAN

Etap horretan Tourmalet mendate ezaguna igo zuen tropelak La Mongie-tik. Eguraldi traketsarekin, eta elurpean, azken bi kilometroetan. Hogeiren bat lagun igaro ziren onenen tropelean Tourmaletetik gainera, eta han zen Iturria, Quintanaren alboan. Iturriak sailkapen nagusian Top 15 izatea zuen helburu, eta 11. postuarekin kontent itzuli da etxera. Jakina, hamar onenen artean sailkatzeak oihartzun mediatiko handiagoa edukiko luke, baina 11. postua ere ez da txarra.



Mikel Iturria aurtengo Route du Sud lasterketan.

Are gutxiago Urnietako ziklistak denboraldi hasieran izan dituen arazoak izan eta gero. Orain bi hilabete erietxera eraman behar izan zuten, birus batek erasotuta konortea galdu zuelako. Neguan errepidean egindako lan guztia pikturara joan zen bat-batean, osatu bitartean. Route du Sud proba sasoiz justu samar iritsi zen, baina emaitza onak konfiantza handia eman dio denboraldiko bigarren zatia indartsu ekiteko.

### LA ROUTE DU SUD Sailkapen Orokorra:

<b>1 Nairo Quintana</b>	<b>Movistar</b>
2 Marc Soler	Movistar
3 Nicolas Edet	Cofidis
4 Thomas Voeckler	Direct
5 Sergio Pardilla	Caja Rural
6 Ricardo Vilela	Caja Rural
7 Mikel Bizkarra	Murias
8 Stephane Rossetto	Cofidis
9 Luis Angel Mate	Cofidis
10 Artem Nych	Gazprom
<b>11 Mikel Iturria</b>	<b>Murias</b>
12 Jose Joaquin Rojas	Movistar
13 David Arroyo	Caja Rural
14 Delio Fernandez	DMP
15 Garikoitz Bravo	Murias

\*Gazteen sailkapenean: Hirugarren.

\*Taldea: Murias, laugarren.

Larunbatean Espainiako Txapelketa korrituko du Iturriak, Alacanten. Ondoren etorriko dira Ordizia eta Getxoko klasikak, eta Burgosko Itzulia, abuztuaren 2tik 6ra. Proba horietan guztietan hamar onenen artean sailkatzeko erronka dauka Iturriak, gorago ez bada, eta Burgoen sailkapen nagusian ere onenengandik gertu egin nahi luke. Lortuko balu, pelotoi profesionalen tokitxoa dauka erakutsiko luke urnietarrak.

## Mendi maratoia Tolosaldean

Ernio, Uzturre eta Errozpe mendiak lotzen dituen lasterketa da, Tolosan hasi eta amaitzen dena.


### Sailkapena:

1	4:04:43	Ismail Razga
<b>Andoain</b>		
19	4:50:45	Jon Ugalde
49	5:18:41	Ivan Piñon
163	6:39:42	Iker Beloki
171	6:48:30	Jagoba Aróstegui
186	7:00:47	Maikel Fernandez
<b>Urniet</b>		
11	4:43:12	Igor Amantegi
80	5:34:10	Iñaki Narbarte
118	6:03:18	Tomax Pellejero



Jon Ugalde andoaindarra.

## Buruntzaldea IKT taldea sasoiko dabil



Legazpin Udako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen eta bertan 100 estiloko proban **Ane Otaegi** txapeldun izan zen, eta **Ibane Otegi** hirugarren. Mutiletan, sailkapen orokorrean **Iñigo Ibarburu** hirugarren sailkatu zen. Taldea ere hirugarren. Zorionak **Buruntzaldea IKT** taldeari.

## Xistera partida ikusgarriak



Narbarte-Ekhik garaipen landua lortu zuten Andoaingo Arraten jokatu-tako partidaren (30-18). Oso partida

serioa bete zuten, Andoaingo finalean eta Urrutxua-Ubilla bizkaitarrak menderatuz.



Luis Urbistondo zesta jokalaririk ohia Andoaingo eskolako gaztetxoekin batera.

## Zartapala ikusgarria



Extebe eta Iratik 22-20 irabazi zuten Demi eta Kristinari atzo ilunabarrean jokatu zen zartapala desafioan, Garagardo azokaren baitan. Pilo-

tazale eta festazale ugari hurbildu zen Arrateko pilotalekura. Ikuskizun xelebre bezain polita ikusteko aukera eduki zuten.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.eus  
**Webgunea:** www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaileak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

EKAINAREN 22TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus)

## Irteera

### Urnietan

■ **Zanpatuz** taldeak antolatuta, Huescako Lizarako aterpera ibilaldia.  
Irteera: Uztaileak 2-3.

## Bilkura

### Andoain

■ Erraustegiari buruzko asanblada irekia.  
19:00 Zadundegi plaza.  
Ekainak 24, ostirala.

## Farmaziak

### Eskualdea

■ Andoain: **Gorospa**.  
Rikardo Arregi, 12.  
Urnietan: **Odriozola**.  
Idiazabal, 18.  
■ Gauzez: **Urrutia**, Hernani.  
Etxeberri, 1. Florida.  
Ekainak 26, 26.

## San Juan sua

### Urnietan

■ **Akelarrea**, San Juan sua.  
21:00 San Juan plaza.  
21:15 Plazido Muxika.  
22:30 Erromeria.  
Ekainak 23, osteguna.

### Andoain

■ Suziri, txalaparta eta kanpai errepikarekin.  
22:30 Goikoplaza.  
Ekainak 23, osteguna.

## Erakusketak

### Urnietan, Lekaio

■ Argazki Digital Rallyaren argazki erakusketa.  
Azken eguna: Ekainak 24.

### Andoain, Urigain

■ Udal ikastaroetako ikasleen artelanen erakusketa.  
Azken eguna: Ekainak 27.

## Kultur Astea

### Urnietan

■ **Denda Berriren** eskutik:  
18:00 Dantzaldia.  
22:00 San Juan sua.  
Ekainak 23, osteguna.

## Kanpaina

### Andoain

■ Salkin taldearen "Andoain txartela" erabilera sustatzeko kanpaina. Erosketak egiten dituztenen artean %1 eta %5 arteko beherapenak. Dohainik da.

## Ikastaroa

### Andoain, AEK

■ **HABEko** azterketak.  
Ekainak 27-uztaileak 29  
Izen-ematea zabalik:  
943 591 704.  
Diruz lagundutakoak.

## ZORION AGURRAK

### ZORIONAK



10 urte dagoeneko! Ondo-ondo pasa. Muxu eta besarkada pila zuretzat, ama eta aitaren partetik. Maite zaitugu!

URNIETA

### ZORIONAK



**Elisabet** Gallo Aizpuruak ekainaren 28an urteak beteko ditu. Egun zorionsua igaror. Muxu asko, etxeokak.

ANDOAIN


### ZORIONAK



Ongi etorri **Julen Olaetxea!** Bi arrebek ondo zainduko zaituzte. Maialenek gainera 2 urte ekainaren 21ean. Etxekoak.

ASTEASU ANDOAIN

### ZORIONAK



**Nahia** Barandiaran Gonzalez-ek 2 urte beteko ditu ekainaren 23an. Egun polita pasa, maitia. Muxu handi bat! Etxekoak.

LARRAUL ANDOAIN



### ZORION AGURRAK

Erraza da, eta dohainik.  
Email: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus) | Webgunea: [aiurri.eus](http://aiurri.eus)  
**619 163 537**

## Aiurriko posta elektronikoak

### Aldaketa

Webguneak eta posta elektroniko ezberdinek .eus domeinua dute, beraz, email bidezko komunikazioa lantzeko garaian kontuan hartu beharrekoa da.

### Emailak:

Andoain: [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus)  
Urnietan: [urnieta@aiurri.eus](mailto:urnieta@aiurri.eus)  
Zorion-agurrak: [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus)

EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.EUS WEBGUNEAN

# Sanjuanak Andoainen, ekainaren 23tik 27ra

## Ekainak 23, osteguna

18:00 Futbolin txapelketa Gazte Lokalean.  
18:15 Kartel lehiaketako sariketa ekitaldia Urigainen.  
18:45 Buruhandiak, erraldoiak eta txaranga.  
19:00 Pregoia eta txupinazoa Ontzaren eskutik.  
19:30 Alberto Agirre eta Udal musika eskolako abesbatza San Martin parrokiaren.  
19:30 Pintxo dastaketa Gazte Lokalean.  
20:00 Salbe Gorena San Martin elizan.  
20:15 Agintarien Soka-dantza, Goikoplazan.  
22:00 Olagainen kalejira San Juan zortzikoa joz.  
22:30 San Juan sua: Alberto Agirre, Udal musika eskolako abesbatzak eta banda, Olagainen, Soinuak, Urki.  
22:45 Agustin Leitza elkartearen danborrada.  
23:15 Nemux diskoteka Nafarroa plazan.

## Ekainak 24, ostirala

09:30 Diana dultzaineroekin.  
10:30-14:00 Artisautza azoka Goikoplazan.  
11:00 Meza Alberto Agirre abesbatzarekin.  
12:00 Axeri-dantza Goikoplazan.  
17:00-19:00 Haur jolasak Goikoplazan.  
17:00-20:30 Artisautza azoka Goikoplazan.  
17:30 Herri kirolak Goikoplazan: Donato Larretxea, Aratz Mugerza, Joseba Otaegi, Xabier Zaldua, Idoia Etxeberria, Nerea Sorondo, Itxaso Onsalo...  
19:00 Kiki, Koko eta Moko udaletxe ondoan.

19:30 Bertsoak Goikoplazan: Amaia Agirre, Miren Amuriza, Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Agin Laburu, Aitor Mendiluze. Gai-jartzaile: Ion Beloki.  
22:00 Iturzaeta txapelketako pala finala Arraten.  
22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.  
23:00-00:30 Zo-Zongo taldearen ikuskizuna.  
23:30-02:00 Tutan Come On eta S.A Nafarroa plazan.

## Ekainak 25, larunbata

09:00-15:00 Usakume tiroketa Pagamendin.  
11:00-13:00 Xakea Goikoplazan.  
11:00 Gazte mailako eskuzko finalak Arraten.  
12:00 Kantu kalejira, txalapartaz lagunduta.  
12:15 Soinuak eskolaren kontzertua Goikoplazan.  
14:00 Txuleta jatea Goikoplazan. Txartelak salgai 18 eurotan Elizondo eta Txitibarren. Egunean bertan 25 euro. Menua: txorizoa, entsalada, txuleta, gazta, intxaurrak. Sagardoa, ardoa eta ura.  
16:00 Zesta punta eta palako finalak Arraten.  
17:00 Dirt Jump Plazaolako bizikleta gunean.  
17:30 Bizikleta Festa Goikoplazan. Ondoren apar festa.  
18:00 Pro mailako Dirt Jump lehiaketa Plazaolan.  
18:30 Kros mistoa. Irteera eta helmuga Goikoplazan.  
20:00 Udal musika eskolako banda Goikoplazan.  
22:30 Zezen-suzkoa Goikoplazan.  
22:45 Mariatxi taldea Goikoplazan.  
23:30-03:30 Esne Beltza eta Laket Nafarroa plazan.

## Ekainak 26, igandea

10:30-13:30 3x3 saskia gazteentzat Nafarroa plazan.  
11:30 Mugaz taldea, konbo gaztea eta Azelain ballet elkartearen musika eta dantza Goikoplazan.  
12:30 Olagainen txistulari banda eta lagunak Goikoplazan: Alberto Agirre; Urki; ikastetxeetako danborrariak; gitarrista eta akordeoilaria.  
16:00 Txirrindularitza itzulia Goikoplazatik.  
16:30-20:00 3x3 saskia gazte eta helduentzat, Nafarroa plazan. Izen-ematea Ganbaran, bezperan.  
18:00 Gora Kaletxiki txaranga Goikoplazatik abiatuta.  
18:15 Txirrindulari itzuliaren helmuga Goikoplazan.  
18:30 Kale antzerkia: "La Conga" Goikoplazan.  
19:30-21:30 Zumba Masterclass Goikoplazan.  
22:30 Bakartxo & Joseba dantza eskola Goikoplazan.

## Ekainak 27, astelehena

11:30-13:30 Haur parkea Goikoplazan.  
13:30 Adinekoei harrera udaletxe aurrean.  
14:00 Aiton-amonen bazkaria Basteron.  
16:30 Funky eta ballet emanaldia Goikoplazan.  
17:00-19:30 Haur parkea Goikoplazan.  
18:00 Haur danborrada Zumea plazatik Goikoplazara.  
19:15 "Ane eta Piratak Parrandan" Goikoplazan.  
19:30 Kontzejupeko pilota partidak Goikoplazan.  
22:30 Cavalfoc kalejira Juanita Alkain plazatik Goikoplazara.